> Urtarrilak 11, asteazkena

Astigarraga. Txox denboraldiaren hasiera. Petritegi sagardotegian, eguerdiko 13.00etan. Protagonistak: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso. Gai librea. Antolatzailea: Sagardun.

IKASTAROAK ASTIGARRAGAKO KULTUR ETXEAN. Datorren urtarrilaren 20an amaituko da Kultur Etxeak antolatu dituen ikastaroetan parte hartzeko izenemateko epea. Ikastaroak: Dantza afrobrasildarra (ostegunetan 10.30etatik 12.30etara. Irakaslea: Isabel Plaza); Haurrentzako sormen-tailerra: buztin-lanak, marrazkiak, elastikoak margotzea, e.a. (ostegunetan, 18.00etatik 19.30etara); Txi-kun (asteazkenetan 15.00etatik 16.30etara edo ostegunetan 20.15etatik 21.45etara); Estresa menderatzeko teknikak (asteartetan 16.00etatik 18.00etara); Areto-dantzak (astelehenetan, 19.30etatik 21.30etara); Euskal Herriko erromanikoa (ostegunetan 18.00etatik 20.00etara) eta Etxeko brikolaje erraza: koadroak zintzilikatu, apalak muntatu, altzariak margotu, entxufeak konpondu... (asteartetan 17.00etatik 19.00etara). Langabezi, erretiratu eta gazte-txartela dutenei %25eko hobaria egingo zaie prezioan.